



H I B E S V Z I V
H I P E R A S I A

21 artista batzeko aitzakia

Erreg. zkia. C046815351532K

Grupo  CATALANA
OCCIDENTE

DENETARIKO
ASEGURUAK (Emilio de los Toyos)

145
Años Contigo



- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**

**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?



Sedaziorarekin

gustoa

ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h / Os-
tiraletan:
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

RPS 04/02



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidier Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*)k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

INKESA/INKEZA.- Aienea, keja. "Inkesaka, baiña atara eben barandillan burua harrapatuta zekan mutikua". "Hori ez dok sekula konformatzen, beti inkesaka".

INKILLAUTA.- Beteta, gainezka, josita. Gaztelera 'plagado'. "Erropak esegitako alanbria txoriz inkillauta eguan".

INTERIOR/INTIOR.- Erropen azpian jazten den kamiseta, mangaduna zein tiranteduna. "Jantzizu interiorra, gaur fresko dago-ta".

ESKUTITZAK

SEKTORE PUBLIKOAREN DEFENTSAN: MOBILIZAZIO SOZIALA

Ustez krisi ekonomikotik ateratzeko aurrekontu publikoak doitu eta murrizteko hartutako neurri gogorren ondoren, Madril, Gasteiz eta Iruñeko gobernuak politika eta baliabide publikoak bankuen eta finantza erakundeen esku jartzera mugatu dira, boteretsuen mesedetan makurtuz.

Herritarron osasunarekin, hezkuntzarekin, erretiroarekin, pertsonen zaintzarekin... negozioa egin nahi dute, euren irabaziak handitzen jarraitu langileon soldata eta lan baldintzak kaltetzearen kontura. Langa-bezia etengabe gora doa, etxetik kaleratzeak, lan-prekaritatea, pobrezia (gazteak, pentsiodunak, emakumezkoak, etorkinak, desgaitasuna duten pertsonak dira kaltetuenak) igotzen ari dira eta gobernuen politikek langileak baztertu dituzte. Ongizate estatua suntsitu nahi dute.

Udal eta Foru administrazioetako, Osakidetzako, Irakaskuntza Publikoko eta Eusko Jaurlaritzako lan-

gileok Euskal Sekto Publikoaren defentsan, murrizketak salatzeke eta Zerbitzu Publikoen garapena exijitzeko mobilizazio dinamika aurrera daramagu: urtariraren 26an hiriburuetan manifestazioak, otsailaren 9an lau orduko lanuzteak eta manifestazioak egin ditugu eta otsailaren 25ean manifestazio nazionala eragile sozialek eta euskal sindikatuak deituta.

Erasoak hainbat dira eta aurrera jarraituko dute, lan erreforma, greba eskubidearen erreforma, sektore publikoarena... Guzti hau gelditu behar da, eta hori borrokatuz lortzen da. Inposizioen eta merkatuaren diktaduraren aurrian "ASKI DA" esateko unea iritsi da; kalera atera behar dugu! Borrokarik gabe ez dagoelako irtenbiderik! Euskal Herria eraiki behar dugu euskal gehiengo langiletik eta euskal gehiengo langilearentzat.

KONTXI KEREXETA ZULAIKA
(Eusko Jaurlaritzako LAB-en sail sindikala)

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Ikasleak ikasteko badakizu zein den akuilurik handiena? Beharra. Ikasi beharra daukanak azkarrago ikasiko du. Hizkuntza batetik bestera aldea izaten da: espainiera dakien batentzat italiarra errazagoa izango da beti, japoniera baino. Eta britainiar batentzat ikastea zailago izango da beti, inkontzienteki daukan hizkuntz harrokeria hori dela-eta. Baina, nolahi ere, hizkuntzak ez dira irakasten; ikasi egiten dira. Irakasle onena izanda ere, ikaslea saiatzen ez bada alferrik da"

(Alan Griffin, ingeles-irakaslea Hernanin)

"Katua abere jator eta inteligentea da, bere espazioa behar duena. Katuak sortzaileak, saltinbankiak eta ganberroak dira: keinua egingo dizute egin behar bada eta atzaparkada emango beharrezkoa ikusiz gero. Beti bueltatzen dira tximeleta berri batekin edo ehizatutako txori batekin. Ardiak, ordea, ez du ezer kuestionatzen, ez da sortzailea: belarra jango du eta gizena hilgo da. Ardiak korporazioak hondoratzen dituzte. Ardiak larreatzea erraza da, baina 100 mila katuen taldea ezin zailagoa. Hori egin du Amancio Ortega"


(Javier Chércoles, Inditex-eko Giza Erantzukizun Korporatiboko presidente-ohia)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko

9.193

datua

bazkide zittuan liburutegixak 2011. urtiaren amaieran eta eibartarren %33'44k dauka bertako karneta. laz 130.451 bisitari hartu zittuan, aurreko urtiarekin konparauta %11'7 gitxiago.

Neguko merkealdi berezixa


AZKEN URTIOTAKO MARTXARI JARRAITTUTA, EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK BEHERAPENEN azokia antolatu dau. Atzo goizian inaugurau eben azokia, agintarixekin eta gaurko moduan, egun osuan egon zan martxan Toribio Etxebarria kalian, 20.00ak arte. Egun biko iraupena eukiko daben azokan parte hartzen diharduen 21 dendak eskintza berezixak etara dittue kalera, merkealdixen azken txanpan dendetan oiñ arte euki dittuen prezixuak oindio gehixago bajauta. Kar-



21 dendak etara dittue aurten euren eskintza berezixak kalera. / EKHI BELAR

pen babespian daguazanak Arizona Jeans, Bianco, Cedry, Gloss, Guby mutilak, Lide, Lola's, No Comment, Ikusimakusi, Kofiña, Pasitos, Ttiki, Chiquitín, Nona, Pissa, Rosa Domínguez, Oskarbi, Txukuna,

Etxedreams, Burbujas y más eta El Corte Inglés dira. Horrez gain, nahiz eta Toribio Etxebarrian posturik ez ipiñi, Tribeka zapatadendiak eta Igmar optikiak be eskintza berezixak dittue.



Espaiñiako Itzuliko etapa preparatzen

SEI HILLEBETE FALTA DIRA ARRATEN ESPAIÑIAKO ITZULIKO HIRUGARREN ETAPIA amaitzeko (abuztuak 20), baiña honezkero egun horretarako kontuak preparatzen dihardue. Espaiñiako Itzuliko ordezkariak Eibarren egon dira aste honetan, etapiari begira gauzak nun eta zelan kokatu leikiazan aztertzen. Alkatetzatik aditzera emon dabenez, "lasterketako ordezkariak

pozik geratu ziran Arratek eskintzen dittuan edertasun eta aukerekin". Bestiak beste, Arraten bertan telebisiño, irradi eta taldien tokixak nun ipiñi leikiazan ikusten ibilli ziran. Horrekin batera, etapa egunian Untzagan ikuskizunak egongo dira egun osuan, buleguak Hezkuntza Esparruan ipiñiko dittue eta taldien autobusak, barriz, Azittaingo industrialdian egongo dira.

Armerixakuen bizikletia banatu dabe

ARMERIXA ESKOLAKO MENDEURRENA DALA-ETA EGINDAKO ZOZKETAKO irabazlia Paul Unamuno Galarza izan da. Zozketia Orbeako denda ofiziala dan Ermuko Bicicletas Agirre dendan egin zan eta han jaso zittuan irabazliak 'State' bizikletia, 'Thor' kaskua eta Orbeako elastiko ofiziala. Argazkixan, irabazliarekin batera, dendako Rafael Agirre eta Armerixa Eskolako Iñaki Urbieta dagoz.



Aratostiak Goi Argi alkartian

GOI ARGI ANDREN ALKARTEKUA BE EDERTO PASAU DITTUE Aratostiak, erretratuan ikusi leikian moduan: danak alkarrekin merixendia hartu eta, jarraixan, abesten eta txistiak kontatzen ibilli ziran, etxerako ordua ailegau zan arte.

Aurrekontuak "kaltetutakuak" eragingo dittuala diño Bilduk

BILDUKO ORDEZKARIXAK AURREKO ASTELEHENEKO PLENUAN ONARTUTAKO AURREKONTUAREN inguru-ko baloraziñua egiñ eben barixakuan eta, "Udal gobernuak EAJ eta PP-ren laguntzarekin onartutako aurrekontuak" eragiña zeñen gaiñian eukiko daben azaltziaz gain, PSE-PP eta EAJren jarrera salatu dabe, "eurak diñuenez presupuestua ardura haundixarekin onartu ei daben arren, guretako argi dagualako atzian kaltetu batzuk laga dittuala". Bestiak beste Udaleko bihargiñak, herriko alkartiak eta errekurso gitxien daken herritarrak kalte gehixen jasoko dabenen artian azpimarratu zittuen agerraldixan eta, horrekin batera, parte-hartzia sustatzeko partida kendu izana salatu eben: "Udal go-

biernuak parte-hartzia duan egitten omen dau. Arcadio Benitez jaunari argi eta garbi esan bihar jako parte-hartzia ez dala billera batera juan eta hara juandakuak zer diñuen apuntatzia. Parte-hartzia taldiak dinamizatzia, eztabaidarako guniak zabaltzia, eztabaida gaixak aukeratzia eta danon artian ondorixo batzuetara aillegatzia baiño, eta horrek kostu bat dakan biharra eta jakintza eskatzen dittu". Hain zuzen be, aurreko barixakuan bertan argitaratu eben Gipuzkoako aldirkari ofizialian parte-hartzia lotutako diru-laguntzak eskatzeko epia zabaldu dala, %75eko finanziaziñuarekin, eta Bilduko zinegotzixak alkartiari eskaeria egitteko proposamena helarazteko asmua azaldu eben agerraldixan.



Tren-geltokiko Matsarirako pasabidia barrittuko dabe

ESTAZIÑO KALETIK MATSARIRA, TRENBIDIAREN GAIÑETIK DOIAN PASABIDIA BARRITTUKO dabe tren-geltokixan egitten diharduen biharren barruan. Pasabidia zaharra eta hondatuta dago eta inguru guztia barrizatzen diharduela aprobetxauta, eraitsi eta tren geltoki barrixaren estetikarekin bat egingo daben pasarela barrixa jasoko dabe. Aurretik, baiña, eta biharren epia ziheztuta dittuenian, obria dala-eta kaltetuta gerta leikiazenekin billeria egingo dabela aurreratu dabe Udaletik.

Fausto Morgado hil da

EGUAZTENIAN HIL ZAN 64 URTEREKIN FAUSTO MORGADO VICENTE ARTISTIA. Margolarixak behin baiño gehixagotan erakutsi zittuan bere bodegoi eta bestelakuak Eibarko aretuetan zeñ hamendik kanporakuetan be. Lagunak eta famelixakuak atzo emon zetsen azken agurra, San Andres elizan ospatutako funeralian.

EGOITZA NAGUSIA
Biloberrista 20 - beheko, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errozketa laber
Egoibonen (Signo poligonoz)
Partikular, inbua eta aseguru etxeri zerbitzuak
Koroak - Ekaleak - Urtearenako ekaleak
Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan 24 ordu
Nazio eta Nazioarteko itzulgoak

Mugica Erorketa
Funeraria mugica

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

bildu eibar

Batzar irekia:
otsailaren 28an, asteartea,
arratsaldeko 19:00etan,
Portaleako ikastaro gelan.

a u t u a n

RUGBIKUEN ZOZKETIA

Aurreko zapatuan Eibar Rugby Taldekuen partiduan egindako zozketan saritutako zenbakixak 879 eta 889 izan ziran. Salduta dagoz eta irabazliak 610432687 telefono zenbakira deittu leikie, premixua jasotzeko.

GIZARTE LARRIALDIXETARAKO LAGUNTZAK


Astelehenian zabaldu eben gizarte larrialdixetarako diru-laguntzak eskatzeko epia eta interesa dakenak irailaren 28ra arte eukiko dabe horretarako aukeria, Pegoran.

IRATI ANDA ILLUNABARRIAN

"Hamarkada bat harkaitz artean" diaporamarekin etorriko jaku Irati Anda eskalatzaillia Eibarrera, martxuaren 6xan 19.00etan, Illunabarrian programaren barruan ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatutako saiuan. Hitzaldira sartzia libria eta musutruk izango da.

Berba lehiaketia aurrera doa

UDAL EUSKALTEGIXAK ETA AEK-K, UDALAREN LAGUNTZAREKIN ANTOLATUTAKO berba lehiaketia aurrera doa. Astelehenian amaittu zan gure herrixa definitzeko berbak lehiaketara aurkezte-



ko epia eta oin botua emoteko momentua da. Guztira 73 parte-hartzaille izan dira eta eurak proposatutako berbak, barriz, 67. Lehiaketara presentautako berbak www.eibarko-euskara.com webgunian irakurtzeko moduan ipiñi dittue. Botua emoteko, barriz, Eibarko herrixa aproposen definitzen daben berbia aukeratu eta botua jartzen daben tokixan klikatu, besterik ez da egin bihar. Botua emoteko epia datorren barixakuan, martxuaren 2xan amaittuko da.

"Herrira" presentatzeko hitzaldixa eguaztenian

HILLAREN 29-XAN, EGUAZTENIAN, HERRIRA MUGIMENDUA JENDIARI PRESENTATZEKO HITZALDIXA EMONGO DAU Nagore Garmendiak 19.00etan Portalean (areto nagusixan). Egin Dezagun Bidea ekimenaren eskutik datorren mugimenduak Euskal Herriko gatazkaren konponbidian preso eta iheslari politiko guztiak etxera ekartzia dauka helburu (informaziño gehixago herrira.org webgunera jo leike). Presentaziñuarekin batera, Eibarren Herri Bilgunea sortu nahi dabe horretarako prest daguazenekin eta, sustatzaillien berbetan, "Eibarko preso eta iheslarixen eta euren famelixen inguruan alkartasuna erakusteko



eta eibartarren inplikaziñua aktibatzeke biharrezkuak begittantzen jakuzen ekimenak bultzatzeko prest daguazeneri eguazteneko aurkezpenian parte-hartzeko inbitaziñua egin nahi detsagu".

Gabonetako otarra

EAJ-K GABONETAKO OTARRA BANATU DAU oin dala egun batzuk eta irabazlia erretratuan pozarren agertzen dan Unanue soraluzetarra izan da. Zorionak eta on egin!

**TERESITA LAPEYRA GUIASOLA**
I. Urteurrena (2011-II-23)


MAITE ZAITUGU
Zure seme-alabak

Bere aldeko meza egingo da otsailaren 25ean (zapatua), arratsaldeko 19.00etan, San Andres parrokian.




Euskal Herriko sindikatu abertzaliek lan erreformiaren kontrako greba orokorra deitu dabe martxuaren 29rako. UGT eta CCOO, euren aldetik, ekimenera gehitu edo ez erabagitzen dihardue momentuz.

Greba orokorra egittiaren alde zagoz?



MAITE ZABALETA
55 urte
garbitzaillia

Beti egon naiz greba egittiaren alde, izan be, bizitza osuan zihar egin dogu burruka langillioek esku-bidiak lortzeko. Holan, martxuan grebia egittiaren alde nago, baiña egixa esan ez dakitt gauza asko lortuko danik.




AITOR BLANCO
24 urte
bihargaña

Ni Greba Orokorraren alde nago, nahiz eta ez nagun sindikatuta. Lan erreformiarekin hartu diran erabakixak demasekuak dira, ez dago eskubiderik. Orduan, grebia egingo neuke.


ESTRELLA CASTRO
81 urte
etxekoandria

Egoeria hobera juateko edoze- rren alde nago, izan be, ez jata bape gustatzen jentia lan barik egotia. Prostesta egitteko auke- ria daka jendiak. Nik nahi dotena da egoera txar hau behingoz amaizia.



ALEXANDER GUTIÉRREZ
26 urte
bihargaña

Greba Orokorra egittiaren alde nago, baiña ez dakitt askorako balixo izango daben. Halanda be, gure esku dagan dana egin bihar dogu egoeria aldatzeko. Langilliori ez deskue kasorik egi- tten eta Gobernuari gure ezados- tasuna erakusteko zeozer egin bihar dogu.





Egunero
07.30-20.30
Igande eta
jaiegunetan
07.30-20.00



OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS

Ogietan aukera zabala Ogi beroa
Opilak Pastelak Sanblasak
Arrautzak Esnea
Edariak Kafea
Prentsa

F. CALBETÓN, 23

Hemen, kalitatea



Zabaldu berria

TEL. 943 53 05 26


FERNANDO DE VICENTE (Eibar, 1965). Quasipinturas (mixtua). Teknika mixtua erabillita artistiak osatutako irudixak sortzen daben efektua, koloretsua ez eze berezixa be bada. **PELLO ALBERDI (Elgeta, 1958).** Olixua mihisean. Elgetako margolarixak bere obraren artetik barrixenetak, iaz mihise gaiñian margotutakuak ipiñi dittu Portaleko erakusketa aretuan. **MARINA BARRERA (Eibar, 1963).** Bernizak eta pigmentuak. Eibarko Udal Dibujio Eskolako irakaslia izandakua, gaur egunian Armagintza-ren Museoko teknikarixa da. **JOSE ANTONIO AZPILIKUETA (Eibar, 1962).** Marrazkixa. 1987az geroztik Euskal Herriko Unibersidadian, Arte Ederren fakultadian klasiak emoten dittu. **VICENTE IRIONDO (Eibar, 1953).** Arrautza-tenpera. Ikasketaz ingeniari mekanikua, bokaziñoz artistia dan eibartarra bertako Artisten Elkarteko kidia da. **ALBERTO IBAÑEZ (Eibar, 1957).** Akrilikua mihisean. **ALTOR ETXEBERRIA (Mendaro, 1958).** Akrilikua mihisean. Mendaroko artistiak hamen be bere estiluaren ezaugarrixak diraneri eusten detse, akrilikuarekin forma geometriko ikusgarrixak sortzen daben kuadruekin. **JOSE FELIX IGARTUA (Ermua, 1948).** Azken 30 urtiotan diseiñu grafiko, inprimategi eta argitale-txe munduan biharrian dihardu, baiña marrazki-irakasle modura jardundakua be da. **JOSE RAMON ELORZA (Elgoibar, 1957).** Akriilikua. Sarixak jasotzen oso ohittuta dagan artistiak Euskal Herriko Unibersidadian ikasi eban, pintura arloko espezialidadia aukeratuta. **JUAN LUIS BAROJA COLLET (Le Creusot, Frantzia, 1957).** Altzairu herdoilgaitzezko letargia. 1964az geroztik Eibarren bizi dan artista ezagunak Mari Puri Herrero eta Gabriel Ramos Urangarekin grabaua ikastiari ekin zetsan 1979xan eta, beste teknika batzuk erabilli dittuan arren, batez be grabauan nabarmendu da Debako Arte Eskolan klasiak emoten dittuan artistia. **MARINO PLAZA (Eibar).** Zeramika. Lasturren bizi dan artista plastikuak eskulturia, zeramikia eta pinturia landu dittu, baiña zeramikagintzan zentrau eta 1983az geroztik horren gaiñeko klasiak emoten dittu Debako Arte Eskolan.

21 artisten obraren aniztasuna Hiperasian ikusgai

Aurreko barixakuan inaurau eben "Hiperasia" izenburuko erakusketa Portaleko erakusketa aretuan. Martxuaren 4ra arte, martitzenetik domekara 18.30xetatik 20.30xetara bittartian bisitatzeko moduan izango dan exposiziñuan 21 artista ezagunen lanak alkarrekin ikusgai ipiñi dittue eta aretua oso-osorik betetzen daben artelanen artian estilo eta modalidade oso diferentiak topauko dittu ikusliak: margolanak nagusi izanda be, eskulturia eta bestelakuak tartekatzeke modua topau dabe. Lehen begiratu batian artelanen artian loturia topatzia gatxa edo ixa eziñezkua izanda be, horrek danak alkarrekin egoteko arrazoia egon badago, baiña: artista gehixenak Debabarrena eta Debagoienakuak izatiatz gaiñ, euren arteko hartuemona sendotzeke bidia eta aitzakixa topau dabe lantzian behiñ antolatzen daben erakusketa kolektibuan. Euretako askok aurretik be aretoberian alkarrekin exposiziñua egindakuak dira,




2005ian Portaleak hartu eban "Taladrine Dream" izenburukuan. Harrezkero 7 urte pasau dira eta oinguan hamaika adiera dittuan berbia, "Hiperasia" aukeratu dabe titulo modura. Ikusliari "Zer da Hiperasia?" galderia bota eta berari laga nahi izan detse gustokuen dakan esanahixa aukeratzeko arduria. Horretarako, baiña, erakusketiari bisitia egittia ezinbestekua da. Edozelan be, gustora betetzeko moduko zeregia.




Barbara Stammel. / LEIRE ITURBE



Asier Laspiurren Iana. / L.I.



Marrazki eta koadroak nagusi dira erakusketan. / L.I.



Kuadruetan klase diferentietako teknikak erabili ditute artistak. / L.I.




Jose Antonio Azpilikueta. / L.I.



Marino Plaza. / L.I.



Fernando de Vicente. / SILBIA HERNANDEZ



Figuratibua baiño, abstraktua da nagusi. / S.H.

BARBARA STAMMEL (Söking, Alemania, 1960). Olixua mihisean. 1995az geroztik Getarixan bizi dan artista alemaniarrak Munich-en ikasi eban, Akademie der Bildenden Kuenste-n. Oso estilo bereziko bere erretrato-bildumako batzuk ipiñi ditu ikusgai erakusketan. **KEIXETA (Zumaia, 1963).** Mixtua. Txiki Agirre Keixetak arte munduko diziplina diferentiak erabili ditu bere obra zabalara osatzeko orduan, baiña Portalera kuadro batzuk ekarri ditu. **AITOR SARASKETA (Eibar, 1962).** Akrilikua mihisean. Ikuslien arreta erakartzeko bere ahalegiñari jarraituta, margolarixak egindako kuadruetan geometriak da nagusi. **RICARDO AZKARKORTA (Bergara, 1958).** Akrilikua mihisean. Bergarako pintoriak erakusteko aukeratutakua kuadruaren itxuria eukitta be, oihal gaiñian margotutakua dira. **BINGEN DE PEDRO (Bergara, 1961).** Mixtua mihisean. Arte Ederrak ikasitakua dan artista bergararraren marguak munduan zihar erakutsi ditu, bestiak beste Japonian, Parisen eta Argentinan erakusketak antolatuta. Beart Bergarako margolarixen alkarteko kidia be bada. **IÑIGO ARREGI ELORZA (Arrasate, 1954).** Margotutako egurra. Arrasatearrak erliebiak eta obra grafiko zabala landu ditu, eskulturarekin batera, eta taldekako muestra honetarako egurrian landutako eskultura ekartzia erabagi dau. **JUAN LUIS GOIKOLEA (Arrasate, 1954).** Olixua. Arrasateko artistiak bere marguak sortzeko teknika diferentiak erabiltzen ditu eta gurian erakusteko olixuak aukeratu ditu. **ASIER LASPIUR (Eibar, 1960).** "...baina, non dago artearen gortutza?". Euskal Herriko Unibersidadian lizenziatuko artista ezagunak Leioan, Arte Ederretako fakultadian klasiak emoten ditu eta erakusketa honetarako eskultura aukeratu dau, bere kuttunena. **MIKEL CAMPO (Miranda de Ebro, 1957).** Egurra. Debako Arte Eskolako zuzendarixak eskulturaren aldeko posturia egin dau erakusketarako, egurra erabillita sortutako artelanarekin aretora juandako bisitarixak agurtuta. **JOSÉ ARANA (Eibar).** Akrilikua taula gaiñian. Kolore biziko kuadruak zintzilikatu ditu margolari eibartarrak, taula gaiñian akrilikuarekin pinttutako artelanak ikusgai ipiñitta.

TEEN-
AJEA



Atzo eman zitzaien hasiera XXXV. Antzerki Jardunaldiari, eta Juan Carlos Rubioren hitzaldiarekin batera, Narruzko Zezen sariak banatu ziren. Horien artean Ander Curiel izan zen. 15 urteko La Salle Azitaineko ikasleak sorpresa handiz hartu zuen saria.

ANDER CURIEL AYUSO (Narruzko Zezen):
“Saiatu naiz ikuskizunean sentitutakoa islatzen”

- Aldez aurretik, zorionak. Espero zenuen saria jasotzea?

Egia esan, lana ahalik eta ondoen egiten saiatu nintzen, baina ez nuen espero irabaztea. Sorpresa handia jaso nuen berria eman zidatenean, izan ere, denbora dezente pasa da lanak entregatu genituenetik eta uste nuen beste batek eskuratuko zuela. Interneten begira ibili ginen, baina ez genuen ezer aurkitu. Pozgarria da horrelako zerbait lortzea; jende askok hartzen du parte lehiaketan eta ez da erreza irabaztea.

- Zertan datza zure lan irabazlea?

Bada, Anthony Blakek Elgetako Espaloian egindako ikus-

kizunaren kritika da. Eibarren saioa eskaini zuenean ere egon nintzen, baina orain dela hainbat hilabete izan zen eta Elgetara joatea pentsatu nuen berriz ikustera. Lanean Espaloia eta dekoratua nolakoa den deskribatzen dut hasieran. Gero, Anthony Blakek egindakoa kontatzen dut, bere ahots gogorra nola erabiltzen duen publikoarengan izua sortzeko, eta abar. Ikuskizunean ni nola sentitu nintzen islatzen saiatu naiz.


- Irabazi duzu aurretik antzeko lehiaketarik?

Ez, hau izan da aurrenekoa.
- Baina parte-hartzeko ohitura daukazu?

Bai, hainbat lehiaketatarako lanak egin izan ditut. Ikastetxean prentsa-tailerra izeneko hautazko irakasgaia daukagu eta hor egiten ditugu lehiaketatarako lan hauek, besteak beste.

- Antzerki Jardunaldien inaurragazioan jaso duzu saria. Gustatzen zaizu antzerkia?

Ikustea gustatzen zait, bai. Aurreko urteetan joan naiz pare bat aldiz antzezpenak ikustera, baina zinemara joateko ohitura gehiago daukat.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net



- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Enpresek badute harrobia Eibarren

Joan den barixakuan Isabel Celaa Hezkuntza Sailburua egon zen Eibarren Armeria Eskolaren mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan, eta krisi ekonomikotik irteteko "berrikuntza eta ekintzailetasuna" bultzatu behar direla aipatu zuen. Nonbait bada, Eibarren ziur aurkituko duela hori.

Historikoki herri ekintzailea izan da Eibar eta horren adibide dira urteetan zehar herriaren paisaia osatu duten tailerrak. Inoiz ez dira falta izan aurrera egiteko ideia berriak, eta azken urteotan egiten ari den lanari jaramon eginez gero, badirudi joerak horrela jarraituko duela.

Ekintzaileen agerpena sustatzeko hainbat programa martxan jarri dituzte ikastetxeek azken al-

dian. Ikasketak enpresa mundura hurbildu dituzte, ikasleei 'mundu erreala' zer den irakatsi die, bertan mugitzen lagundu die fikziozko enpresekin, eta horietariko hainbat proiektu aurrera egin eta gauzatu egin dira errealitate bihurtuz. Ikasleek, bere aldetik, guzti horri erantzuteko gaitasun eta interesa erakutsi dute, eta harrobia handitzen doan seinaleak nabari dira krisia denon ahotan badago ere.



Herriko ikastetxeek ahalegin berezia egin dute ikasketak enpresa mundura hurbiltzeko.


EJE, UrratsBat, ...

Orain dela 3 aste EJE Azoka (Empresa Joven Educativa) jaso zuen Untzaga Plazak. Bertan, Euskadi osotik etorritako 300 gazte inguruk eskoletan sortutako kooperatibak erakutsi zizkieten herriari. Normalean hiriburuetan antolatzen den azoka izaten da EJE, baina Armeria Eskolaren mendeurrena dela-eta hemen egin zen.

Armeria Eskolako bi eta Uni Eibar-Ermuako beste batek hartu zuten parte ekimenean, eta hotzari aurre eginez euren produktu eta lanak jarri zituzten publiko eta beste kideen eskuetan.

UrratsBat programak, bere aldetik, proiektu ugari sustatu ditu azken urteotan, eta horietariko asko errealitate bihurtu eta bere martxa egiten dihardute gaur egun lan munduan. Urtero proiektu berriak ipintzen dira martxan, eta denek aurrera egin ezin badute ere, horietariko batzuek bere bidea egiten dute programatik at.

Aktibitate eta dinamika honek erakusten du, beraz, herriko enpresek badutela harrobia, baina ez hori bakarrik, baita konpententzia ere. Gazteak daude enpresa eta proiektu berri horien buru. Gazteak, baina aski prestatuak.



Celaá Hezkuntza sailburua barixakuan egon zen Armeria Eskolan. / EKHI BELAR

Otaola etorbidea, 3 - atzea (Hiper Eroskiren alboan)

Iruki

Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com



GAZTEMENUA

barixaku gauetan

txotxa eta garagardoa barne



DENA
18 €
BARNE

Entsalada mixtoa edo
Bakailao tortila edo
Bakailao konfitatua

Txerri-saiheskia parrillan edo
Ollasko errea parrillan edo
Okela gisatua

(Hirurak patata goarnizioarekin)

Gaztaia, intxaurreak
eta membrilloa

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

MANOLO MAGRO ALVAREZ

I. urteurrena (2011-II-26)

*Mirestehoa, izan da beti
zuke izan dugun indarra,
primerakoa izan zara zu,
laqun, aita ta senarra,
eta patuak, orduan eman,
ziquen qu denoi bizkarra,
etorri zen ezbeharra,
zure bihotzen negarra,
zure irribarra, ez da izango,
geratzen zaiquin bakarra,
bizitzak hendu eta bihurtu
bait zaitu zure izarra.*



ETXEKOAK

Bihar antzerki-maratoiari ekingo zaio herrian. 20 antzezpen izango dira guztira, eta euskerazko lanekin hasi eta amaituko dira XXXV. Antzerki Jardunaldiak. Bihar, estreinaldian, Txalo taldearen 'Hil arte bizi' egongo da ikusgai Hezkuntza Esparruan. Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta Iker Galartza dira antzerkiko aktoreak.

IKER GALARTZA, aktorea:

"Euskerazko antzerkiak bere tokia behar du"

- 'Hil arte bizi' antzezlanean adiskidetasuna da ardatza, baina zein zentzutan?

Ez dugu adiskidetasunaren gainean beste barik irakaspen bat kontatu nahi, adiskidetasuna muga batzuetan jartzea da asmoa. Lerro batzuk markatzen ditugu eta planteatu nahi dugu ea muga horiek gurutatu daitezkeen edo ez. Muga horiek gurutatzeko egoerak muturrera eramane behar dira, maitasun kontuak dauden bezala, heriotza presente dagoen egoeretara. Adibidez, "lagun bati zerbaite barkatuko zenioke?", adar kontuak badira, nork daki, baina heriotza tartean badago, egoera aldatu egiten da.

- Jose Veigaren 'Amigos hasta la muerte'-ren egokitzapena da antzezlana, zuk euskaratu eta Euskal Herrian kokatu duzuna. Nolako izan da lan hori?

Oso ondo funtzionatu duen testua izan da eta ez dakit zergatik, baina uste nuen Euskal Herrirako oso egokia zela. Euskeraz gatz eta piper asko izan zitekeela pentsatzen nuen. Orduan, testuari heldu eta ukitu ezberdinak eman nizkion. Adibidez, Argentinako musikekin apainduta zegoen jatorriko testua eta ez nuen zertan aldatu, baina nola beste begi batez begiratzen dugun hemen eta musika ere daukagunez, Gozategiren musika aukeratu nuen antze-

lana apaintzeko. Gozategiren azken diska ari nintzen orduan entzuten eta esaten nuen, "honek duen musikak antzerkia apaintzeko balio du, egokia da". Ez dugu zertan kanpora joan hainbat gauzen bila. Seguruenik, Tapia eta Leturia entzuten egongo banintz, berdin gertatuko litzateke eurekin. Musika eta antzezlana ondo uztartzen zutela pentsatzen nuen, besterik ez. Horrela, Gozategikoei baimena eskatu eta aurrera. Eurak pozik!

- Aktore moduan zer izan da du zuretzat proiektu hau?

Zerbait ezberdina egitea izan da. Jendek kartelean ikusten nauenean, Joseba Usabiagarekin gertatzen den bezala, barre egiteko asmoarekin etortzen da beti. Kurioso izango litzateke nire argazkia kartelean jarri eta gero 'Cinco horas con Mario' ikustea. Aktore bezala, gauza ezberdinak egitea gustatzen zaizkit. Antzezlana honek oreka ematen dit, baina jendeari espero duena ere ematen saiatzen gara, izan ere, horregatik gaude hemen, umoreagatik. Jendeari umorea gustatzen zaio eta horri eutsi behar zaio, baina horrez gain istorio polita kontatzeko gogoia du aktore batek, pertsonaia bat eraiki eta gauzak kontatu. Antzezlana ez da parodia bat, istorio polita kontatzen da. Ni horrekin konformatzen naiz.

- Estreineko antzezlana egingo duzue Antzerki Jardunaldietan. Presio gehiago zuentzat?

Ilusio berezia egiten dit. Izan ere, orain dela 14 urte, 20 urterekin unibertsitateko antzerki taldean nengoenean, lan bat aurkeztu genuen Hezkuntza Esparruan. Caligularena egin nuen. Orduan bai nuela presioa, kaka eginda nengoen! Nire buruari esan



nion ea bueltatuko nintzen berriz Eibarrera antzezlana bat egitera. 14 urte pasa dira, baina inoiz ez da beranduegi.

- Aurten euskerazko lanekin zabaldu eta itxiko dira jardunaldiak. Euskarazko antzerkia aldarrikatu beharra dago?

Hori da. 'Ipar haizearen kontra' lanarekin itxiko dira jardunaldiak. Aurten maila handiko 4-5 lan estreinatu dira Euskal Herrian. Euskal antzerkigintzak apustu handia egin du eta afizioa sortzeko moduko lanak dira. Ea jendea animatzen den euskarazko lanak ikustera. Beti iruditzen zaigu, pelikulekin gertatzen den bezala, lanek galdu egiten dutela euskeraz, baina pentsatzen dut etxean maila dagoela eta zorte handia dugula. Euskerazko antzerkiari bere garrantzia eta lekua eman behar zaio. 'Ipar haizearen kontra' gaztekeraz ere egingo da, seguruenik gurea ere geroago, baina euskeraz abiatu diren produkzioak dira.



Iker Galartza lan honetan lagun dituen Joseba Usabiaga eta Sara Cozar-ekin.



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

27. zenbakia. 2012ko otsaila

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 fincas@euki.com



...eta kitto! aldizkariaren INMOBILIARIEN GEHIGARRIA



R. Juaristi API
www.inmobiliariajuaristi.com

Arragueta, 2 bis - behea
Tel. - Faxa. 943 20 08 60

| HERRIA | KALEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|--------|-----------------|--|-----------------------|
| EIBAR | Arragueta | Berrizteko. | 70.000 € |
| EIBAR | J. A. Mogel | 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Ganbara. | 90.000 € |
| EIBAR | Isasi | Apartamentua. Terrazak. Bista onak. Igogailua. | 130.000 € |
| EIBAR | Arane | Duplexa. Garajearekin. | 270.000 € |
| EIBAR | Bidebarrieta | 4 logela, egongela, sukaldea, komuna. Despentsa. | 216.000 € |
| EIBAR | Urkizu | 2/3/4 logelako etxebizitzak. | 198.000 €-tik aurrera |
| EIBAR | Santaiñes | 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Kafekazioa. Igogailua. | 153.000 € |
| EIBAR | Amañako dorreak | 3 logela. Trastelekua. Terraza. Berriztua. | 129.000 € |
| EIBAR | Romualdo Galdos | 3 logela, sukalde-jangela, komuna. Balkoia. Trastelekua. | 150.000 € |
| EIBAR | Urkizu | Etxebizitza altua. Igogailua. | 102.000 € |
| EIBAR | Barrena | Tamaina desberdineko hainbat etxebizitza. | 120.000 €-tik aurrera |
| EIBAR | Errekatxu | Altua. Igogailua. Berriztua. | 185.000 € |
| EIBAR | Txirio kale | Eraikin berriak. Estreinatzeko. | Galdetu |

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95 Bidebarrieta 29

Errebal, 20
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

Hurrengo
gehigarrian
agertzeko
deituiguzu:
943 20 67 76


Higiezin-zerbitzuak
eta Barne arkitektura
Tel./Faxa. 943 74 23 06 20870 ELGOIBAR
www.inmobiliariapsxxi.com

| HERRIA | KALEA | EZAUGARRIAK | PREZIOA |
|--------|-------------------|--|---------------------------------|
| EIBAR | Barrena | Aukera ona. Apartamentua. Trastelekua. Igogailua. | 93.200 € |
| EIBAR | Juan Gisasola | Aukera ona. Apartamentu polita. Berriztua. Igogailua. Kalefakzioa. | 100.000 € |
| EIBAR | Txirio kale | Aukera ona. Apartamentu berria. Sabai altuak. | 113.900 € |
| EIBAR | Fermin Calbeton | 110 m ² ko etxebizitza bi. 2. eta 3. solairua. Berrizteko. Duplexa aukeran. | 135.000 € bakoitza |
| EIBAR | Romualdo Galdos | 2/3 logelako etxebizitzak. Igogailua. Kalefakzioa. | 155.000 €-tik 177.300 €-ra arte |
| EIBAR | Muzategi | 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran (30.000 €). | 197.000 € |
| EIBAR | Urkizuko dorreak | 2/3/4 logelako etxebizitzak. | 240.000 €-tik 280.000 €-ra arte |
| EIBAR | Barrena (Lidl) | 3 logela. Ia berria. Aukera ona. Altua. 13 m ² ko trastelekua. Garajea aukeran. | 233.000 € |
| EIBAR | Arratebide | Atiko polita. Eraikuntza berria. Terraza bi. Garaje eta trastelekua aukeran. | 269.000 € |
| EIBAR | Zuloagatarren | 4 logela. Altua. Igogailua. Kalefakzioa. Garajea aukeran. | 306.000 € |
| EIBAR | Julian Etxeberria | 4 logela. Altua. Igogailua kaletik. Berrizteko. | Galdetu |
| EIBAR | Errebal | Altua. Terraza. 200 m ² . Berrizteko. Igogailua kaletik. Garajea aukeran. | Galdetu |
| EIBAR | Errekatxu | Garaje itxiak Bista Eder eta Bidebarrietatik sarrerarekin. Eraikin berria. | 26.000 € - 43.000 € |

943 201213
615 474057



IbaiOndo
inmobiliaria



Errekatxu

2. faseko azken etxebizitzak salgai
Garaje itxiak 25.000€-tik.





www.errekatxu.com


Konpromiso barik galdetu.

WWW.ibaiondoinmobiliaria.com



aratosiák





2012



Concepto Egilek igoerarekin amets egiten jarraitzen du

ARETO-FOBALLEKO ES-KUALDEKO TALDE NAGUSIAK MAILA BERRIARI NEURRIA hartu diola dirudi eta igoera play-offerako borrokan sartzeko asmoekin jarraitzen du (lehenengo biek jokatuko dute); hirugarrena izanda, promozio horretan sartuko ez baltiz ere, hurrengo denboraldiko Espainiako Kopan jokatzeko aukera izango luke. Une hone-



tan 6. postuan daude Concepto Egilekoak, Pinsegue eta EbroSala lehenengo biengandik bost puntutara. Azken hiru jardunaldietako garaipenen ondoren (asteburuan 1-5 irabazi zuten Zaragozan), Alcáñiz hartuko du Conceptok Olaizaga kirolegian, jarraian Burgosen jokatzeko eta martxoaren 17an Laskorain hartzeko etxean.



Deporreko xakelariek 3-1 galdu zuten

BIHAR ARATOSTEKO MOZORROA KENDU ETA ZARAUTZI IRABAZTEN AHALEGINDU beharko da Klub Deportiboko xake taldea, T. Etxebarriako lokaletan 16.00etatik aurrera jokatu den 7. jardunaldian.

Gipuzkoako xake ligako seigarrenean, Alex Aranzabal izan zen irabazle bakarra, bere partiduan Pirc defentsa erabiliz Eugenio de Andrés garaitzerakoan. Julen Garrrok, Edu Olabek eta Jon Aranak ez zuten zorte bera izan.



Peñagarikanok lagunduko dio Lasari Astelenan

BEIZAMAKOAK ASTELEHENEAN TOLOSAN EMANDAKO IKUSKIZUNA errepikatzea nahiko du domekan eta, binakako txapelketa nagusian, garaipen berria lortzen lagundu Aritz Lasari. Pablo Berasaluze eta Albisu izango dituzte aurkari gipuzkoarrek sailkapena zehazten doan honetan eta zeinek joko duen

aurrera erabakitzeko gero eta gertuago gaudenean. Jaialdiarekin hasteko, Rete-gi Bi - Larrinaga eta Apezetxex - Merino I.a bikoteak arituko dira, nor baino nor. Eta, azken partiduan, Taintak eta Argotek osatutako bikotea Mendizabal III.ak eta Ladis Galarzak osatutakoaren aurka lehiatuko da, 2. mailako txapelketan.



Ruibal saskibaloitza taldeak aurten izan dituen hiru berrikuntzak.

Ruibal liderrak bigarren sailkatua bisitatuko du Elgoibarren

MAILAZ IGOTZEKO BIDEAN, AURRERAPAUZO GARRANTZITSUA EMATEKO AUKE-RA izango du Miguel Angel Sánchezen taldeak domekan Elgoibarren. Eguerdiko 12.00-etan hasiko den neurketan, Gabi Jatetxea bigarren sailkatuari egingo diote bisita eibartarrek,

euren arteko lehia gehiago argituzeko asmoz. Ruibalek ez du partidurik galdu denboraldi honetan eta elgoibartarrek bakarra galdu dute (Ipuruan 68-44 nagusitu zen Eibarko taldea 1. itzulian). Lau partidu gehiago irabaztea nahikoa izango litzateke eibartarrek mailaz igotzeko.

Koskor vs Alkideba: foball-zaletuaren txapela biren kontua da

AZKEN ALDIAN EZ BATAK EZ BESTEAK KALERIK EGIN EZ DUTENEZ, atzetik datozenak gero eta atzerago geratzen doaz sailkapenean. Hori bai, azken jardunaldian nahiko larri ibili ziren talde biak euren neurketak irabazteko: Koskor 1-0 gailendu zitzaion Caserío XOK taldeari eta Alkideba, bestalde, 3-2 Tankemans-i. Elurrarengatik atzeratutako jardunaldia jokatu zen asteburu honetan eta EzDok-ek eta Durangok erraz irabazi bazuten ere, berdinketak izan ziren nagusi, oso gol gutxiarekin gainera.

Bihar goizeko 09.00etan jokatu den Durango-Alkideba neurketa izango da asteburuko interesgarriena. Etzi ordu berean jokatu du Koskor liderrak EzDok-en aurka, Alkidebari ateratzen dion sei puntuko aldeari eusteko asmoz gutxienez.



Burgosen irabazteak 3. postuan finkatuko luke Eibar KE

AZKEN PARTIDUAN ARAN-DINARI SARTUTAKO LAU GOLEK animoak berpiztu ditu Eibar KE-ko zaletuen artean eta, baita, ligaren amaieran lau lehenen artean sartzeko itxaropena ere. Egia bada ere bi gol azkar sartu zituela, domekako taldearen jokoarekin pozik irten zen zaletuen gehiengoa Ipuruatik. Azken postuetan da-

goen Burgosi egingo diote bisita bihar Manixen mutilek, ordu ez-ohikoan (20.15etan hasiko da partidua). Eskozia La Bravak, Premier Bidaiekin elkarlanean, goizeko 10.00etan irtengo den desplazamendua antolatuko du partidua ikusteko. Prezioa 18 eurokoa da eta gaur eguerdian amaitzen da izena emateko epea.



Del Olmo berehala integratu da Manixen taldean. / FELIX MORQUECHO


Eibarko tenis txapelketan izena emateko aukera

EIBARKO TENIS TXAPELKETA IZANGO DA JOKOAN martxoaren 4a baino lehen izena ematen dutenen artean. Eibarko Kirol Patronatoak antolatutako torneo maila indibidualen jokatuko da, liga modalitatean, 16 urtetik gorako tenislarietarako. Ordaindu beharreko kuota 20 eurokoa da eta izena emateko honako helbide eta telefono zenbakietara jo dezakete interesatuek: libargutxi@gmail.com (615-758420) eta ikerezkerra@hotmail.com (635-708128).



Hierros Anetxek Zarautz bikoiztu zuen


LIDERGOA SENDOTUZ ETA MAILA ONA ERAKUTSIZ, Hierros Anetxe Eibar Rugby taldeak 34-17 irabazi zion Zarautz Rugbyari Unben eta, emaitza horrekin, sei puntuko aldea jarraitzen dio ateratzen AMPO Ordizia B-ri, azken horrek 28-19 irabazi baitzion Uribealdeari. Liga erregularra amaitzeko jardunaldi bakarra falta da, hemendik astebetera jokatuko dena (asteburu honetan ez dago partidurik). Gero igoera faseari ekingo diote Isasaren mutilek: lehenengo kanporaketan garaile irtenda, mailaz igotzea lortuko zuten eta, bestela, beste aukera bat izango dute, multzoko 1. postuan amaitu dutelako.



Gimnasia erritmikoko eskolartekoen txapelketa bihar Ipuruan

B MAILAKO GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETAREN 1. FASEA izango da jokoan bihar, goizeko eta arratsaldeko saioetan. 10.30etan hasita, alebin eta infantil mailetako sei klubek jardungo dute eguerdian arte: Ipuruak bi talde

aurkeztuko ditu alebinetan eta bat infantiletan. Arratsaldean, berriz, benjaminen txanda izango da 17.00etan hasiko dena, tapizaren gainean 23 taldeetako ordezkarien lana ikusteko aukera eskainiz. Aukera bikaina ikuskizunaz gozatzeko.



CAYETANO MENÁRGUEZ VEGARA II. urteurrena (2010-II-28)

**ORAIN DELA URTE BI JOAN BAZINEN ERE,
GURE BIHOTZEAN JARRAITZEN DUZU.**

Zure emazte eta seme-alabak

*Bere aldeko MEZA egingo da otsailaren 26an (domeka),
eguerdiko 12.00etan, SAN ANDRES parrokan.*

Martxoaren 8an 'Emakumearen Nazioarteko Eguna' ospatzen da, eta Juan San Martin Liburutegiak eta KZ Guneak emakumeentzako enplegua bilatzeko tailerra antolatu dute. Aukera bi egongo dira ikastaroan parte-hartzeko; bata, martxoaren 1ean 11.00etatik 13.00era eta, bestea, 27an 16.00etatik 18.00etara.



LAURA AGUDIÑA (KZ GUNEA):

"Interneten dena (edo ia) aurkitu dezakegu"

- Zer da, orokorrean, ikastaro honetan eskainiko duzuen?

Enplegua bilatzeko nola prestatu edo zer egin azalduko dugun modu orokorrean. Besteak beste, elkarriketak nola prestatu, oinarrizko curriculum nola egin... Gizonentzat ere funtzionatuko luketen gauzak azalduko ditugu, baina nola Emakumeen Nazioarteko Eguna den, emakumeei bakarrik eskaintzea pentsatu dute liburutegikoek. Ikastarok ordu bikoak izango dira, Lanbide eta Infojobs bezalako webguneak ikusiko ditugu, eta gauza puntualak jorratuko ditugu. Ordu bi ditugunez, nahiko gaitetik eman beharko dugu. Horrela, guk hainbat jarraibide emango ditugu, gero emakumeek euren kabuz erabili ditzaten.

- Zeintzuk izan daitezke enplegua interneten bilatzearen alde onak?

Alderik onena da gaur egunean dena interneten dagoela (edo ia dena). Adibidez, enpresen helbideak han bilatu ditzakezu, Lanbideren eskaintza danak han aurkitzen dira... aukera asko dago.

- Kontaktu pertsonala, hala ere, galdu egiten da.

Bai, lana eskaintzen duenaren eta eskatzen duenaren artean ez dago lehen zegoen kontaktu hori, baina elkarriketan eman daiteke harreman hori. Horrela izaten da orokorrean, izan ere, enpresa askotara lan bila bazoaz, curriculum euren helbide elektronikora bidaltzeko esaten dizute.

- Alde txarrak zeintzuk izango lirarteke?

Orain komentatu duguna. Lana eskaintzen duenak ez duela ezagutzen curriculum ean azaltzen den pertsona hori, eta horri jarraitzen diola erabaki bat edo beste hartzeko.

- Badago jende asko ez dela internetez gehiegi fidatzen. Fidagarriak dira interneten bitartez lana bilatzeko agintziak?


Askotan entzuten dira interneten segurtasunari buruzko zalantzak, "nik ez ditut sartuko hor nire datuak", eta abar. Normala da horrelakoak entzutea, baina azaltzen badiezu zer den eta nolabaiteko konfidantza ematen badiezu, konturatu direla seguruak direla. Infojobs, adibidez, jende asko eta askok erabiltzen du. Lanbiden, bere aldetik, oinatz digitala ematen dizute eta internet bitartez dena egin dezakezu.



Gualberto Marqués zenturioko erromatarra. Eskailera mekanikoetan ikuskizuna. / ISABEL HERNANDEZ


Giza irudiek Aratosteekin bat eginez

35. Antzerki Jardunaldien barruan antolatutako giza-irudien erakustaldiak Aratosteekin bat egin zuen Barixaku Erregularrean. Bolivia, Argentina, Venezuela eta Italiatik ailegatu zaizkigu aurten Bartzelonako M.P.C. taldearekin jarduten duten aktoreak, bakoitza pertsonaia berri batekin: Gualberto Marqués zaldi gaineko zenturioko erromatarra izan zen, Jorge Balmaseda zentauroa, Karina Valde-rrama guardasolaren anderea, Josefina Vermejo arbola eta eurekin batera brontzezko beste irudi bat ikusi genuen, Untzagan, eskaile-rra mekanikoen aldamenean.



Martxoaren 8aren inguruko erakusketa

Datorren barixakuan, martxoaren 2an zabalduko dute Topalekuan Martxoaren 8aren inguruko erakusketa, 19.00etan. Martxoaren 11ra bitartean ikusgai egongo den erakusketan plastikan diharduten hainbat artista profesional zein zaleturen artelanak ikus- teko aukera izango da, ohiko ordutegian: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Dena prest Bertso Asteari ekiteko

Martxoan Bertso Astea ospatuko dute Arrate Kultur Elkarteak, ohiko martxari jarraituta: taberna-saioa martxoaren 8an izango da eta bertan Amaia Agirre eta Julio Soto bertsolariek jardungo dute. Martxoaren 10rako, berriz, bertso bazkaria antolatu dute Maialen Lujanbio eta Jon Maiarekin. Bazkarirako txartelak Kultun daude salgai, 25 eurotan (23 eurotan bazkide direnentzat).



Urrezko domina Jorge Lahidalga eta Jon Azkune pianojole gazteentzat


ANDOAINEN OTSAILEKO LEHEN ASTEBURUAN JOKATUTAKO PIANOJOLE GAZTEEN LEHIAKETAN 18 URTETIK BEHERAKO 887 pianojolek jardun zuten, tartean Eibartik joandako 47 gaztek. Lehiatu ziren eibartarrak Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako, Musikum akademiako eta Isabel Laspiurren ikasleak dira eta azken horrekin klaseak hartzen dituzten Jorge Lahidalga (12 urte) eta Jon Azkune (11 urte) urrezko dominarekin itzuli ziren etxera. Gainera, epaimahaiaren aipamen berezia ere jaso zuten 11-14 urte bitartekoen B mailan, 4 eskurako modalitatean, eta lehiaketa agurtzeko kontzertuak joteko aukeratutako 30 bat lagunetako bi izan ziren eibartar gazteak.



Kokein-ek Ondarroan joko du

KOKEIN TALDEAREN LANIK BERRIENAK EGUN GUTXI BARRU IKUSIKO DU ARGIA. "Izan" izenburua ipini diote eibartarrek euren laugarren diskoa izango denari eta aurkezpenarako lehen kontzertua Ondarroan emango dute martxoaren 10ean, hango Kafe Antzokian, Pasaiako Anai Arrebak taldearekin batera eskainiko duten emanaldian. Horren harira, Gaztezulok zozketa antolatu du eta parte hartzen dutenen artean (www.gaztezulo.com helbidean) kontzertura joateko hiru sarrera bikoitz oparitu ditu. Bestalde, diskoa eskuratu nahi duenak interneten, www.kokein.com webgunean lana doan jaisteko aukera izango du. Taldekideen berbetan, "gure lanak zerbait gehiago merezi duela uste dutenek donazioa egiteko aukera izango dute webgunean bertan". Formatu fisikoa, berriz, biniloa (12") izango da eta web orrian zein zuzeneko emanaldietan erosteko aukera izango da.

Antzerki jarunaldiak




Otsailak 25
20.30
Unibertsitatean

"Hil arte bizi"

Txalo Produksioak
SARA COZAR, IKER GALARTZA, JOSEBA USABIAGA

Zer egin zure bikoteak zure lagun hoberekin alde egiten badu? Heriotzaz hitz egiten duen komedia, adiskidetzaz hitz egiten duen tragedia: lagun talde batek aurre egin behar dion tragikomediaren aurrean gaude.




Otsailak 27
20.30
Unibertsitatean

"La apoteosis necia"

Cía. El Cansancio
BERTO ROMERO

Emanaldi komiko honetan, antzezten duen pertsonaiaren bizi-ibilbidearen bitartez, familia, maitasun eta lan esparruko bere zorigaitzak ezagutuko ditugu. Begirada surrealista eta zinikoaren galbahetik pasatutako eguneroko erreferenteekin.



Otsailak 28
20.30 / Coliseoan

"Perro que muere"


Compañia do Chapito
JORGE CRUZ, MARTA CERQUEIRA

Zehaztasun osoz planteatutako proposamen honetan, irribarre algarak izoztu egin daitezke eta, agian, malkoetan bihurtu ere. Elementu absurdo eta makabroak erabiliz, umorea da lan guztiaren ardatz eta keimua kontaktatzuneko baliabide nagusia.


"Lázaro"

Mirage Compañía
MIGUEL OYARZUN, DANIEL GALLARDO,
MIGUEL PÉREZ

Memoria zatiekin egindako muntaia da, hiru antzezle eta zuzeneko musika nahikoa bihurtuz protagonistaren sasoi-ko gizartearen kritika garrantzua egiteko. Engainua, pikardia, gosea, azpikeriak, nagusiak, morroiak... dira tartean.



Otsailak 29
20.30 / Coliseoan



"El hombre de al lado"

Zuzendaria: MARIANO COHN
DANIEL ARAOZ, RAFAEL SPREGERBULD

Egoera larriak eta barregarriak tartekatzen dira elkarrizketa eta eszena landuak dituen tragikomedia atsegin eta azkar honetan, gai garrantzitsuak era umoresuan garatuz.

Martxoak 1
17.30/21.00 / Unibertsitatean

laburrak

KONTZERTUA KARRIKAN

Domekan 20.30etan kontzertua hartuko du Karrika tabernak: "Todo o nada". Aurretik "Paso a Paso" taldean ibilitako Kike bakarlarik, gitarrarekin lagunduta, malenkoniak eta letra iraultzailez betetako abestiak eskainiko ditu.

IPUINAK ARABIERAZ

Domekan, 17.00etatik aurrera, umeentzat ipuin kontalari saioa eskainiko dute arabieraz Portalean (3. pisuko ikastaro gelan), Safa Eibarko Emakume Musulmanen elkarteak antolatuta. Asmoa hilero, azken domekan horrelako saioa eskaintzea da. Sarrera librea eta doan izango da.

UNTZETA ELGETAN GAUR

Gaur 22.30etan hasiko da Markos Untzeta bakarlarik eibartarraren kontzertua, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Untzetak aurretik ere ezagutzen du toki, literatura eskolen aitzakiarekin han jardundakoa delako, baina oraingoan bere azken lana zuzenean eskaintzeko kontzertua emango du. Sarrerak 5 eurotan daude salgai (bazkideendako 3 eurotan).

Itzio nagusi Narruzko Zezen lehiaketan

EGUAZTENEAN, ANTZERKI JARDUNALDIEN IREKIERA EKITALDIAN JASO ZITUZTEN SARRIAK 27. NARRUZKO ZEZEN lehiaketako irabazleek, hitzaldia ematen egon zen Juan Carlos Rubio aktorearen eskutik. Epaimahaiak aurreikusitako sarietako batzuk eman barik lagatzea erabaki zuen, baina hauek izan dira aurten saria jasotzen duten gazteak: antzez-gidoien atalean, euskeraz, Itzioko Dandara Sánchez Pereirak akzesita eraman du "Super-heroiak" izenburukoarekin eta gaztelerazko lehen saria, berriz, ikastetxe bereko Amaia Alberdi Luengok jasotzen du, "La extraña invitación" lanarekin; artikuluetan, euskeraz, akzesita La Salle Azitaingo Ander Curiel Ayusok eraman du eta gaztelerazko lehen saria, 13 urtera arteko-

Juan Carlos Rubiok hitzaldia eman zuen herenegun. / EKHI BELAR



en artean, lehen saria Itzioko Irene Amarillarentzat izan da "Experiencia teatral" lanarengatik eta bigarrena ikastetxe bereko Malen Illarramendi Beitiarentzat, "Mucha mierda" lanarengatik; eta 17-25 urte bitarteko mailan lehen saria Koldo Carranzak eskuratu du "El teatro, medio para transmitir lecciones de vida" lanarengatik.

Udaberriko kontzertua domekan

CIELITO MUSIKA BANDAK III. UDABERRIKO KONTZERTUA ESKAINIKO DU COLISEOAN, 12.30etan, txirindularitzari eskainitako egitarauarekin. Emanaldia "Txirindularien Txirrina" polkarekin,

kontzertua zuzenduko duen Carlos Sánchez Barbak Eibarko Txirindularien Elkartearentzat propio sortutako piezarekin zabalduko dute eta jarraian "La Chasse" (J. Strauss), "Perpetuum Mobile" (J. Strauss), "The Lonely Goatherd" (P. Royers), "The Typewriter" (L. Anderson), "Poeta y Aldeano" (F. Von Suppe), "Trisch Trisch" (J. Strauss) eta "El Galope Infernal" (J. Offenbach) entzuteko aukera izango da.



Zapatuko ipuina liburutegian

BIHAR ARRATSALDEAN, 18.00-ETAN IPUIN-KONTALARI SAIOA HARTUKO DU Juan San Martin liburutegiak Zapatuko Ipuinaren programari jarraituta: biharkoan Durangon bizi den Saroa Bikandiren txanda izango. Antolatzaileek diotenez, "urte bi daramatza liburutegietan ipuinak kontatzen eta bere saioetan olerkiak eta abestiak ipuinekin tartekatzen joaten da".

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA


• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txalixa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.


ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAXO: 943 202564

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IKER, gure etxeko "mi niño bonito", bi urte bete eta mutil haundixa egin zarelako. Muxu asko famelixaren partez.




Zorionak, UNAItxo!!!, bixar urte bi beteko dozuz-eta. Muxu haundi-haundi bat aitaxoren eta amatxoren partez.




Zorionak, IRENE, martitzenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, IRAIDE, zure bigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat tio Javi eta tia Iraiaren partez.



Zorionak, MAIALEN Bilbao, astelehenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, UNAI, domekan hiru urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.




Zorionak, MIREN, zure lehelengo urtia betetzerakuan. Ahizta Arrate, lehengusu Aitana eta Pello eta famelixaren partez.




Zorionak, TIO JAVIER, zure urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, bere hirugarren hillabetian EMMAREN partez.



Zorionak, amama!!! Askoi maitte zaittugu. Zure famelixaren partez.




Zorionak, NAIA, lau urte bete dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NAHIA, atzo sei urte bete zenuz-eta. Baita zure neba UNAIri be, hillaren 7xan bere eguna izan zalako. Etxekuen partez.



Zorionak, LARRI! Gaur zenbat egiten dozuz, 36 ala 63, eh? Eibarko Txirriindulari Elkartaren eta, batez be, Joxeren partez, besarkada bat.



Zorionak, NAROA, aurreko domekan zortzi urte egin zenuz-eta. Zure ama famelixaren partez.

HILDAKOAK

- Jose Luis Alegria Martínez. 82 urte. 2012-II-16.
- Luis Zendoia Mendizabal. 81 urte. 2012-II-16.
- Jose Luis Labiano Uribarri. 87 urte. 2012-II-17.
- Jesus Egia Orbea. 82 urte. 2012-II-19.
- Juan Herrera García. 61 urte. 2012-II-20.
- Agustina Elorza Gallastegi. 91 urte. 2012-II-20.
- Juana Legarra Garetxana. 87 urte. 2012-II-21.
- Eusebia Azkargorta Errasti. 91 urte. 2012-II-21.
- Fausto Morgado López. 64 urte. 2012-II-22.


zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

24an: 22.30
25ean: 19.45, 22.30
26an: 20.00
27an: 20.30

"No tengas miedo..."

Zuzendaria: Troy Nixey



(2 ARETOAN)

24an: 22.30
25ean: 19.45, 22.30
26an: 20.00
27an: 20.30

"Bajo amenaza"

Zuzendaria: Joel Schumacher



(ANTZOKIAN)

24an: 22.30
25ean: 19.45, 22.30
26an: 20.00
27an: 20.30

"El invitado"

Zuzendaria: Daniel Espinosa



JAOTAKOAK

- Maria Agirresarobe Mora. 2012-II-12.
- Jon Cortina Mendoza. 2012-II-13.
- Maddi Lanas Valenciaga. 2012-II-13.
- Leire González Ruiz. 2012-II-15.
- Markel Sastre Martín. 2012-II-16.

horoskopoa

ARIES

Fruta gehiago eta grasa gutxiago jatea komeni zaizu. Ez da itxura kontua bakarrik; osasun kontua da gehiago. Luzera igariko duzu.

TAURUS

Bizi duzun egoera nahiko kaskarra dela badirudi ere, tinko eta indartsu jarraituko duzu. Etorkizunean asko lagunduko dizu bizipen honek.

GEMINI

Noiz kenduko duzu Aratosteetako koko-jantzia? Akabo, eh! Zure benetako irudia eman behar duzu orain, ez zure pertsonaiarena.

CANCER

Ezin izango duzu ile-hori hura burutik kendu. Aurpegia, begiak... baina batez ere ileak txundituta laga zaitu eta tontotuta ibiliko zara.

LEO

Jakin dezala ez duela zure beharrik; gai zarela zure burua zaintzeko. Askotan gutxietsi egiten zaitu eta horrelakorik ezin duzu onartu.

VIRGO

Ondo pasatu zenuen Aratosteetan, baina hobeto pasatuko duzu asteburu honetan, gutxien espero duzunean. Ezusteko polita jasoko duzu!

LIBRA

Aste nahiko aspergarria pasatuko duzu, gehienbat ez duzulako ezer egiteko gogorik izango. Ea norbaitek zerbait egitera animatzen zaituen!

SCORPIUS

Lan ederra egin zuen Cupidok otsailaren 14an, ezta? Kolore biziz ikusten duzu bizitza orain, ahoan irrifarrea begibistan duzula.

SAGITTARIUS

Bizkarreko mina izango duzu domekatik aurrera: postura txarrak eragindakoa izango da. Aulkian ondo jartzen ikasi beharko zenuke.

CAPRICORNIUS

Oscar sariak egun gutxi barru banatuko dira eta, zu nominatuta ez bazaude ere, erakutsi duzu aktuaziorako dohaiak dituzula.

AQUARIUS

Bizitzan duzuna zeinen gutxi baloratzen duzun konturatu zara. Triste da, baina beti gertatu behar da zerbait horretaz ohartzeko.

PISCIS

Ez da normala beti puntual heltzea toki guztietara; oraindik arraroagoa da zu bezala, beti berandu iristea. Ordularia atzeratuta daukazu?

Barixakua 24

NEGUKO MERKEALDIA

10.00.- Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako azoka, eskaintza bereziekin. Toribio Etxebarria kalean.

EDUKIONTZIAK

16.30.- Bihondakinak jasotzeko edukiontzia materialaren erabileraren inguruko azalpenak emateko teknikaria. Portalean.

Zapatua 25

EDUKIONTZIAK

10.00.- Bihondakinak jasotzeko edukiontzia materialaren erabileraren inguruko azalpenak emateko teknikaria. Portalean.

IPUIN KONTALARIA

18.00.- Saroa Bikandi ipuin-kontalariaren saioa (3 urtetik gorakoendako). Juan San Martin Liburutegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Hil arte bizi", Txalo Produksioak. Hezkuntza Esparruan. Sarrera 11 euro.

Domeka 26

KONTZERTUA

12.30.- III. Udaberriko Kontzertua, Cielito Musika Bandaren eskutik, txirrindularitza giroko piezekin. Coliseoan.

IPUIN-KONTALARIA ARABIERAZ

17.00.- Haurrentzako ipuin kontalari saioa, Safa Eibarko Emakume Musulmanen elkartearen eskutik. Portalean (3. pisuko ikastaro gelan).

KONTZERTUA

20.30.- Todo o Nada, Kike bakarlariaren taldeak "Tierra del aire" aurkeztuko du. Karrika tabernan.

Astlehena 27

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "La apoteosis necia", El Cansancio. Hezkuntza Esparruan. Sarrera 15 euro.

Martitzena 28

IKASTEN

10.00.- "Arxibategien istorioak", Yolanda Ruizen eskutik. Armeria Eskolan.

BATZAR IREKIA

19.00.- Bildu Eibarrek deitutako batzar irekia. Portalean (ikastaro gelan).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Perro que muere no ladra", Companhia do Chapitô. Coliseoan. Sarrera 11 euro.

Eguaztena 29

TAILERRA

10.00.- "Lana eta ikasketak atzerrian" (3 ordu). Portalean (alde zurretik izena eman behar da, 943820180 telefono zenbakian, svo@debegesa.com helbidean edo www.lanbide.net helbidean).

HITZALDI AURKEZPENA

19.00.- "Herrira" mugimendua aurkezteko hitzaldia, Nagore Garciaren eskutik (Egin Dezagun Bidea). Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Lázaro", Mirage Compañía de Teatro. Coliseoan. Sarrera: 11 euro.

Eguena 1

IKASTEN

10.00.- "Izpiritualitatea", Xabier Andonegiren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17.30 eta 21.00.- Zinea: "El hombre de al lado". Hezkuntza Esparruan. Sarrera: Euro bi.


SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | | | 2 | | 7 | | |
| 4 | | | | 8 | | 2 | 6 |
| | 2 | | | | 1 | | |
| 5 | | | | 9 | | | 1 |
| | | 6 | 1 | | 8 | 3 | |
| 8 | | | | 4 | | | 2 |
| | | | 4 | | | | 3 |
| | 4 | 9 | | 3 | | | 7 |
| | | 3 | | | 6 | | |
| | | | | 6 | | | 8 |

DENBORAPASAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 9 | 0 | 7 | 6 | 3 | 4 | 2 | 1 |
| 4 | 2 | 3 | 8 | 8 | 1 | 7 | 5 | 6 |
| 1 | 6 | 7 | 2 | 4 | 5 | 8 | 9 | 3 |
| 3 | 8 | 1 | 6 | 5 | 4 | 2 | 7 | 9 |
| 7 | 5 | 6 | 1 | 2 | 9 | 3 | 8 | 4 |
| 9 | 4 | 2 | 3 | 7 | 8 | 1 | 6 | 5 |
| 6 | 3 | 4 | 0 | 9 | 7 | 5 | 1 | 2 |
| 8 | 1 | 9 | 5 | 3 | 2 | 6 | 4 | 7 |
| 2 | 7 | 5 | 4 | 1 | 6 | 9 | 3 | 8 |

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

- Otsailaren 29ra arte
MIGUEL QUIRÓS en argazki erakusketa.
El Ambigú tabernan.
- MARIAN ARETXABALA** ren argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
- JOSE VILA** ren argazki erakusketa.
Debako Turismo Bulegoan.
- Martxoaren 2ra arte
ALEX JIMÉNEZ en "Itsasoaren istorioak".
Untzagako Jubilatuta Etxean.
- Martxoaren 4ra arte
"HIPERASIA". Portalean.

ikastaroak

- **Ur-sorospen eta birziklatze ikastaroa.**
Otsailaren 25etik aurrera, Ipuru kiroldegian.
Izen-ematea eta informazioa: Eibar-Ermuako Gurutze Gorrian, 943176248 edo 659464241 telefonoetan.
- **Sukaldaritza energetikoa eta makrobiotika.**
Martxoaren 3 eta 4an, 10.00etatik 12.30etara eta *martxoaren 6, 13, 20 eta 27an*, 19.00etatik 21.30etara. Izen-ematea eta informazioa: Azataporrúa elkartearen (Juan Gisasola kalean), eguaztenetan 17.00etatik 20.00etara.
- **Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa.**
Martxoaren 3tik 24ra, zapatuetan, 09.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.30etara, DYAKo Eibarko ordezkariaren (Pagaegi, 5 behean). Izen-ematea eta informazioa: 943464622 telefonoan edo www.dyagipuzkoa.com helbidean.

lehiaketak

- **Portada lehiaketa.**
XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 28ra arte*, As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).
- **Berba Lehiaketa.**
Gaia: Eibar herria egokien definitzen duen berba. Informazioa eta lanak entregatzea: *Martxoaren 2ra arte*, Udal Euskaltegian, AEK-n edo www.eibarko-euskara.com webgunean.
- **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.**
Lanak entregatzea eta informazioa: *Martxoaren 20ra arte*, Arrate Kultur Elkartearen.

telefono jakingarriak

| | |
|-----------------|-------------------|
| SOS delai |112 |
| Pegora |010 |
| Udaletxea |943 70 84 00 |
| Portalea |943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa |943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa |943 82 01 10 |
| KIUB |943 20 38 43 |
| Epaitegia |943 03 34 00 |
| Iberdrola |901 20 20 20 |
| Naturgas |902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Mendaro osp. |943 03 28 00 |
| Anbulategia |943 03 25 00 |
| Torrekuia |943 03 26 50 |
| Errepideak |902 11 20 88 |
| Ertzaintza |943 53 17 00 |
| Eusko Tren |902 54 32 10 |
| Pesa |902 10 12 10 |
| Taxiak |943 20 30 71 |
| |943 20 13 25 |
| Alkohol. Anon. | ..629 14 18 74 |
| Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Soraluzen, Zeleta kalean. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Ganbara eta kalefakzioa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan eta altzari berriekin. Garajea aukeran, pegora ondoan. 135.000 euro. Tel. 696-658413 eta 626-666919.
- Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 125.000 euro. Tel. 685-728995.
- Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Esteponan (Málaga) pisua alokagai, kaia eta hondartzaren ondoan. 3 logela, egongela, komun bi eta terraza (itsasora). Dena kanpora eta jantzita, elektrogailu eta ohe-arroparekin. Tel. 945-621015 eta 645-728317.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-734000.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Asua-Errekan (Urkizu) garajea salgai. Sarrera onarekin, erosoa eta azkarra sartzeko. Tel. 670-793312.
- Lokala salgai Ubitxa behean. Tel. 617-688311. Maria.

3.2. Errentan

- Asua-Errekan garaje txikia alokagai. Prezio onean. Tel. 652-700919 eta 666-845249.
- Ileapaindegia alokagai, arazo personalarengatik. Oso merke. Tel. 667-806737.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-778839.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-887814.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 690-134485.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-052165.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-464300.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabal. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 683-463499.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-421933.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka eta gauzez. Tel. 648-143804.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-515953.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 638-515953.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 630-365137. Elena.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-567034 eta 659-037882.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan edo garbiketarako egiteko. Tel. 943-567034 eta 659-037882.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-236564.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 698-632922.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Autoarekin. Tel. 632-798768.
- Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 674-691381.
- Mutil arduratsua eskaintzen da kamarero eta zaintzaile jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871 eta 943-257815.
- Neska eskaintzen da kamarero jarduteko, odontologia-laguntzaile moduan eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-002368. Kely.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 675-377021 eta 657-395980.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukalde-laguntzaile edo kamarero jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 692-332871 eta 943-257815.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile moduan eta kamarero jarduteko. Tel. 615-720384 eta 943-257815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.
- Jostuna eskaintzen da jostungintzan lan egiteko, igeltsero eta elekttrizista moduan eta kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 689-286167.
- Batxilergoko neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 622-824468.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka, jordan erdiz eta baita gauzez ere. Tel. 618-052967.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile moduan (esperientzia) eta beste edozein lanetarako. Tel. 622-383696.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 695-804895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-423493.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-689227. Aitziber.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 666-986611.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 674-027961.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-150376.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-873547. Socorro.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 659-080186.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea behar da gazte bati klaseak emateko. Tel. 639-136266.

5.2. Eskaintzak

- Ingeniari kimikoak klase partikularrik ematen ditu: LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.
- Marrazketa titulatuak pintura eta marrazketa eskolak ematen ditu. Tel. 666-449559.
- Batxilergoko neska batek klase partikularrik ematen ditu. Tel. 622-824468.


6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohe artikulatu bi (0'80) salgai. Gutxi erabiliakoak eta egoera onean. Izarak oparitzen dira. Tel. 615-781238.
- Bikiendako kotxe-silla salgai, kapazo bat eta bi aulkixorekin. Ia erabili gabe. 400 euro. Tel. 629-326067.
- Babyjorn umeendako motxila salgai. Berria. 60 euro. Tel. 600-466573.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Border Collie arrazako txakurra desagertu zen, orain dela ia bi hilabete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. Ikusten baduzue, deitu. 1.000 eurorekin sari-tuko da Tel. 629-588627.



6.4. Bestelakoak

- Gorbeia arrazako ardi-txakur-umeak oparitzen ditut (ar eta eme bina). Tel. 943-203205.
- Bikiendako aulki euritakoa oparitzen da. Tel. 669-208763.

CAPI

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

Gorputz tratamenduak Kabitazioa


- KOIPE GUTXITZEA
- ZELULITIS GUTXITZEA
- AZAL INDARTZEA



Aurpegi tratamenduak

Berehalako eragina duen

GAZTETZE TRATAMENDUA



lehen

orain

Radiofrekuentzia


SENDOTZE TRATAMENDUAK



BESOAK

lehen

orain



ESTRIAK

lehen

orain

aurpegian eta gorputzean:

ZIMURRAK (BEGI ETA AHO INGURUAK)

Laser fotodepilazioa

| | | | |
|-------------------------------|------|--------------------------------|-------|
| ezpaina | 10 € | hanka erdiak + izterrondoak .. | 100 € |
| begitartea | 10 € | hanka osoak | 120 € |
| kokotsa / patillak | 30 € | hanka osoak + izterrondoak .. | 150 € |
| besapeak | 35 € | besoak | 70 € |
| izterrondoak | 40 € | bularra + sabelaldea | 65 € |
| izterrondoak sartuta | 50 € | bizkarra + lunbarra | 65 € |
| izterrondoak + besapeak | 70 € | sorbaldak | 35 € |
| alba lerroa | 15 € | ipurmasailekoak | 35 € |
| hanka erdiak | 70 € | | |

5 saiorako BONOIA

masajea **OPARI**
saioa 35 euro

GEL ATZAZKALAK
MIKROPIGMENTAZIOA
BETILE LUZAPENAK
MASAJEAK (OSTEOPATIA)

...eta kitto!-ren

**itzulpen
zerbitzua**



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.


elkartea@etakitto.com

ETXEBIZITZAK GARAJE PLAZAK LOKAL KOMERTZIALAK

Biziera berri bat Eibarren

Herriaren erdian bizi,
inguruan nahiko tokirekin

2. Faseko azken etxebizitzak salgai



Garaje itxiak 25.000€-tik

Sarrerak Bidebarrieta eta Bista Eder-etik



Tel. 943 20 12 13


Ibai Ondo Inmobiliaria

Bidebarrieta kalea, 24

www.errekatsu.com

Sustatzailea

ErrekatsuBerri S.L.



Errekatsu
Residencial-Etxadia